



xnp

2016ko maiatza - 15. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



xv.alea,
urteurrenez
betea!





zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea
eta Goizuetako Udaren
Euskara Zerbitzua

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-7**..... Suhiltzaile boluntarioak
20 urte herria zaintzen
- **8-11**..... Bidaia: Australia
- **12**..... Atzera begira: 1993
- **13-16**..... Goizueta iruditan
- **17**..... 10 urte Umore-Ona
Abesbatzaren doinuekin
gozatzen
- **18-20**..... Azaro kulturala
- **21**..... Tifanitzo herritar guztien
bilgune
- **22-23**..... Ezetz asmatu
- **24-25**..... Bertso txokoa: Txirrita eta
Goizuetako misioak
- **26**..... Ipuin erotikoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure txanda



XV.alea, urteurrenez betea!

Hemen gara aurten ere, hutsik egin gabe. Aurtengoak zenbaki boro-bila dakarkigu, gainera, XV.alea du XAPO aldizkariak.

Zenbaki eta ospakizunez betea dator kigu aurtengo Xapo. Urteurren esanguratsuak beteko dituzte aurten Goizuetan hainbat elkartek, eta horiek ere aldizkarira ekarri nahi izan ditugu. Goizuetako suhiltzaile boluntarioek 20.urteurrena beteko dute aurten, 2 hamarkada herriari lagunduz, herrian sortzen diren ezbehar, premia edo larritasunei erantzuna emanez. Eginkizun horretan dabiltzanei zorionak esateko probestuko dugu XAPO aldizkaria, me-rezi dute eta.

Suhiltzaile taldea baino lehenxeago sortua da Gazte Asanblada, eta orain baino lehen aldizkari honetan zorionak esan izan badiegu ere, aurten mende laurdena betetzen dutela gogoratu nahi izan dugu. Argazki sorta bat ekarri dugu Gazte Asanbladak urteotan egindako lanaren errepasoa egin asmoz. Zorionak beraz, zuei ere 25.urteurrenean.

Gaztexeagoa da herriko korua, duela 10 urte sortu zen Umore-Ona abesbatza. Herrian sortua, baina, herritik kanpo ere makina bat emanaldi eskainitakoa da abesbatza. Izan duten ibilbidea gogoratu digute, orrialdeotan.

Herriko txoko eder eta hainbat irudi ikusiko ditugu Alaitz Eskuderoren be-

gietatik, berak aukeratutako argazki bilduma ekarri duelako, ea zuen gustukoak diren, gozatu.

Nola ez, herritarrek ere izanzen dute ahotsik ale honetan ere, eta jakinmin handia sortu duen gaiaz galdetu diegu hainbat herritarrei: ea zer dioten herrian gasolindegia jartzeko proposamenari buruz.

Bada bestelako gairik ere, herritik kanpo bizi direnei tartea egiten diegulaiko, sarritan. Aurtengoan, Xabier Berroetari eskatu diogu atzerrian bizitakoak goizuetarrei kontatu eta erakusteko. 2 urte pasatxo daramatza Australian bizitzen. Lurralde hura zer nolakoa den deskribatu digu hitzez eta irudiz jantzitako erreportajea.



Suhiltzaile boluntarioak

20 urte herria zaintzen

Suhiltzaile boluntarioen taldea sortu aurretik herriko jendea, su-ezkilak entzun orduko, plazara hurbildu eta sua itzaltzera abiatzen zen.

1995eko azaroan, Jasone Huizi, herriko neska gaztea hil zen mendiko sute batean laguntzen ari zela, ezbehar latz hura gertatu ondoren, udalak babes-zibileko sailarekin hitzegin zuen eta suhiltzaile boluntario proiektua aurrera eramatea onartu zen.

Deialdia egin zen eta 26 lagunek taldea osatu zen. Hauen artean bi neska ere baziren. Altsasun 50 orduko formakuntza egin zuten.

Urteak igaro dira eta hainbat boluntario pasa da bitarte horretan. Gaur egun 34 pertsonak osatzen dute Goizuetako taldea.

Baliabide egokiagoak dituzte orain, ongi hornituta daude: bi kamioi, ambulanzia bat (trakzioduna, hemengo pistetan ibiltzeko aproposa), Land Rover bat eta elurra kentzeko eta gatza botatzeko tresnak dituzte.

Bi urtetik behin birziklatzen dira, eta hilabeteko azken larunbatetan suhiltzaile arduradunarekin praktikak egiten dituzte, Goizuetako suhiltzaile-parkean.

Nafarroan, suhiltzaile boluntarioz osatutako 7 parke daude: Goizuetan, Leitzan, Lesakan, Beran, Luzaiden, Izaban eta Agoitzen.

Urteetan egindako lanaren errekonozimendua ere jaso dute Goizuetako suhiltzaile boluntarioek, Nafarroako Gobernuak saria eman zien 2013an.

Urte guzti hauetan sute, istripu eta ezbehar ugarietan protagonistak izan dira, ongi prestatuta daudela eta beti laguntzeko prest daudela erakutsiz. Euren borondatez segitzen dute herrian zaintzen.





Suhiltzaile boluntarioen ziurtagiria lortu zuen lehendabiziko taldea, 1997an ateratako argazkia.

1996an sortutako boluntario taldea:

Ibon Elizegi, Miren Terese Uitz, Luis Elizegi, Mari Joxe Aizpuru, Eneko Lekuoena, Luis Lujanbio, Joxe Mari Zubiri "Xubiri", Iñaki Loiar-te, Iñaki Rodríguez, Axier Lujanbio, Igor Elizegi, Angel Salaberria, Iban Arozena, Jose Antonio Apezetxea "Txamo", Iñigo Elizegi, Jose Jabier Ansa, Aitor Apezetxea, Jose Jabier Elizegi, Ion Etxegia, Iosu Apezetxea, Iñigo Apezetxea, Iosu Narbarte, Dani Narbarte, Ioseba Apezetxea, Jokin Loiar-te eta Larxaro Apezetxea.

IBON ELIZEGIRI ELKARRIZKETA

Goizuetaren kokalekuagatik ezinbestekoa da boluntarioen taldea herrian izatea, kasu batzuetan ondoko herritik etortzerako beranduegi izan daitekeelako. Hori da, besteak beste, suhiltzaile boluntarioen taldea sortzeko arrazoietakoa bat.

Ibon Elizegi boluntarioetako bat da. Lanbidez ere suhiltzailea da Ibon, Noaingo aireportuko suhiltzaile-parkean lan egiten du. Baina ofizioz suhiltzaile izan aurretik, afizioz hasi zen langintza honetan herrian bertan, suhiltzaile boluntarioen taldean sartuz. 1996an hasi eta geroztik horretan dabil, herrian sortzen diren larrialdi eta beharretan lagunduz. Taldekide guztiak euren borondatez aritzen dira lanean.

- Zein dira zuen egitekoak? "sua itzaltzea" etortzen zaigu burura lehendabizi, baina beste hainbat lan ere egiten duzue.

Goizuetako suhiltzailen talden: anbulantzikin zerbitzu oso garrantzitsua izaten da, irteera gehienak anbulantzikin izaten baitia. Urgentziak, gaixok, istri-

puk, erreskatek. Gauza oso larria bada medikua eta erizaina ere gurekin jotzen dia. Salida gehienak.

Aurten neu nahiko berexia izan da eta mendiko sute asko izan dia, euldia dela eta... lehorra eta hegohaizeak eta terreno asko erre da

Prebentzio aldetik, nahiz eta gure egin-beharra ez izan, bide bazterrak garbitzera re tokatzen ziu. Arbolak eta eroitzen bada, Doneztebetik torri behar izaten dute eta hasieran gutxinez bidea garbitzeko guri abixten diute. Tximeni garbiketarak ere iten ttu. Negu parten bertako bidetan, baserri-tako pistatan ta elurra bada, garbitu edo gatza bota.

- Nola funtzionatzen duzue? nork jasotzen du deia, nola zabaltzen duzue taldean abisua?
- Garai batean "busca" rekin ibiliko zintzen, ... teknologia berriek asko erraztuko zuten hori dena ezta?

Hasieran telefono fijo-tara deitzen zuten. Itxen bazeunden parkera joteko abi-

Gaur egungo boluntario taldea:

Jabier Apezetxea, Marian Aranaz, Xumar Bakero, Xabier Cueto, Eva Elizegi, Ibon Elizegi, Luis Elizegi, Unai Eskudero, Agustin Eskudero, Martin Etxeberria, Jesus M^a Etxegia, Jon Etxegia, Jose R. Etxegia, Mirari Etxegia, Josu Garmendia, Fernando Goya, Mertxe Huici, Lourdes Huici, Miguel Angel Loiar-te, Ekaitz Narbarte, Daniel Oiarzabal, Angel Salaberria, Eli Salaberria, Jon Zabaleta, Ane Zinkunegi, Juanjo Zozaya, Aritz Zubiri, Andoni Zugarramurdi eta Miguel Zugarramurdi.

soa ematen zuten, eta itxetik falta izan ezkerro ba enteratu gabe gelditzen ziran abisorik bazen ere. Ordun abisoa alletzekin lehenbiziko parkera jotzen zenak, bertan don sirena jotzen zun. Horrek suaren abisoa ematen zun eta suhiltzailek jakinan gainen jartzen zian.

Anbulantzia beranduxio tor zen, bost bat urtera eta hontako bi buska jarri zizkiuten eta txandatzen jotzen ginan buska (astez batzuk, asteburur bestek ahal zen neurrin ahal zen denbora gehina martxan eukiz). Buskana kendu zutenen denari mugikorratara, minutu baten barrenean, alletzen ziu ze larrialdi mota den eta joteko aukera dunak SOSera abixten do eta itten da, saten ditena arabera parkera jon.

- **20 urte beteko dira aurren, suhiltzaileen boluntario taldea sortu zenetik: 26 lagun hasi zineten, gaur egun zenbat zarete?**
- **Ibon, zu zara hasieratik gaur arte lanean zabiltzana, anaia Luis eta Angel aguazila bezala: zer sentitzen duzu atzera begirata?**
- **Zer eman dizu "langintza" honek? ... herriaren alde lan egin izanaren satisfazioa, ...**

25 laun hasi ginan bai, eman ziuten lehenbiziko kurtsoa Altsasun izan zen. Launbetero jotzen ginan, 7tan o abitzen giñan autobusan eta Altsasuko parkera jotzen ginan. Han ematen ziuten suhiltzailen kurtsoa. Hasierako haieetatik 3 gelditzen ga: Angel aguazila, Luis ta ni.

Eta 20 urte hoitan nahiz aldatzen jon, beti izandu da jendea talden. Beti 20 launetik gotti eondu izandu ga.

Momentu hontan 30 lagun gaude. Azpimarratzekoa da talden don emakume kopurua, ez dela leku askotan tokatzen ta gauza erra da.

- **Asko aldatu al da 20 urteotan suhiltzaile boluntarioen lana? Baliabide aldetik hobera egin izan duzue: arropa, kamioia, ambulanzia, ...**

Hogeia urte hoitan gauz asko pasa dia. Atzera beira jartzen baga gauza asko aldatu da. Hasi ginanen arrunt gaztek ginan eta urtek pasa hala gauz asko ikasten jotzen za. Gainera ni suhil-



Ibon Elizegik jaso zuen, herriko taldearen izenean, Nafarroako Gobernuak emandako merezimenduzko saria 2013an.

tzaile naiz, lanbidea hala dut. Eta honek asko eragiten dit funtzionamendurako, gauzak ikusteko. Hasieran urduriago ibiltzen ginan, ze harrapatuko ginun beldurrez eta 20 urte pasa ondoren gauza asko ikasten dia eta ikusten jotzen za jendek nola funtzionatzen dun. Hasieratik honera gauza asko hobetu da, batez ere ematen duten ekipazio eta materialagatik, formakuntza, ibilgailuk... erreztasun haundiagoa do elkarrekin eoteko eta dudan aurren edozein lekura deitu eta informatzeko ere.

Baliabide aldetik ere asko aldatu da gauza. Hasieran 20 laun hasi ginan, kurtso bat eman ziuten prestatzeko biño arropak adibidez 10 galtza pare eta 10 suhiltzailen alkandora eta esku larru batzuk bakarra biali zittuzten. Lehenbiziko urten horrekin moldatu behar izan ginun. Parken eoten zian arropak eta lehenbiziko alletzen zenak jantzi eta bestek ahal zen bezala moldatu ta aurrera.

Geroztik bakoitzak bere arropak eta ekipo pertsonalak ditu. Ibiltzeko bakoitzak berea izatea beharrezkoa baita. Oan bakoitzak bere kaskok eta ointakok dauzkiu, gure arropak.

Ibilgailuk hasieran beste lekutatik kendutakok iristen zian, askotan hala-ko moun eoten zian, noski. Deus bino

hokio zen bino, oroitzen naiz lehenbiziko eunen, kamioia alletu zenen probatzera jon ta erruedan eja hautsi zizila, hasiera erra!! Gaur eun dauzkiun kamioi, ambulanzia eta land Roverra onak dia eta egoera onen daude. Ongi zaintzen dia bertan e, noski. Rebisiok eta denak itten dia.

- **Zenbatean lagundu du helipuertoa izateak?**

Helikoptero larrialdi handia denen tortzen da eta euldik uzten bado. Honek asko murrizten do ospitalera alletzeko denboa, arrunt garrantzitsua da ta kasu batzutan. Gehien bat gauden lekun gaudelako. Hale Goizutak dun partikularidadea, lainoa, euldi txarra (inguru guzin bezala, noski) arazo asko izaten dia helikopteroa alletzeko.

- **Formakuntza ikastaroekin segitzen al duzue?**

Formakuntza aldetik ematen dizute suhiltzaile boluntarioen kurtso bat, gero ambulanzin ibili behar dutenak "Tecnico de transporte sanitario" titulua eduki behar do. Eta hilabeten azkeneko launbeten Goizuetako parken itten da praktika bat eta hontara Nafarroako Suhiltzaileen arduraduna tortzen da gurekin praktika ittera.



Elkarlanen Leitzako Suhiltzale bolondresen taldekin ere praktikak itten dia. Askotan tokatzen ziun elkarrekin lanen aitzea eta harremana ona du bi talden arten. Mendiko sutetan eta erreskatetan elkarrekin eotea tokatu ziu eta han e talde bikaina dola san beharra do.

• **Urteotan denetan hainbat anekdota gertatuko zitzaizuen, kontatuko al diguzu esan daitekeen bakarren bat?**

Asko daude biño denak ezin ttu kontatu, "Sekreto profesionala". Jendek ohitura haundia do galtzeko, batez ere anbulantzikin ta jendea eraman denen galtzekoa, ta apuroa maten diu ez kontestera biño, enteinttu beharra dute beti ezin ttula gauzak kontatu.

Halare bakarran bat kontatuko dut: Oan dela urte batzuk, Ordiziko eskolako kuadrila haundi bat galdu zen, ia 90 laun. SOSera deittu zuten ilunabarrren, ez ziala Goizutara alletzen, mendin galduk zaudela. Eun hartan suhiltzale taldez aparte herriko jendea re muttu zen eta oroitzen naiz nola Jabier Belakokok autobusa haundia eraman zula, jendea kartzeko. Guk ginittun garraio guzik ibiltare ez baitzian kabi-

tzen. Hain poza kusi behar zen, umek e nahiko ttikik zian ta txaloka ta guzi hasi zian hora kus zutenen. Egunkarin eskertza biali zuten eta barazkikin ta gero tor ziala oroitzen naiz.

Abixtu ziuten gizon bat eroi zela koska batetik. Goizeko ordu bata zen eta ilundua zon eta karretera bazterren amildegitik, 10 bat metro, betti erori zen gizona eta lar tarten zintzilik geldittua zon. Guk erreskatatu giñun ta geroztik, oan dela lau urte pasatu zen hau, eurritako loteria oparitzen diu talderi. Aurten zenbaki hortan 600 euro tokatuzkiu eta denak bazkari er bat in du soziden.

- **Zuen urtetako lana saritu nahi izan zuen Nafarroako Gobernuak. Instituzioen errekonozimendua jasotzeak zer esan nahi du zuentzat?**
- **Guztiak boluntario aritzen zarete, deus jaso gabe, hori ere azpimarraztekoa da, borondatez ari zaretelako herriaren alde lanean. Auzolanean eta zuen borondatez egiten duzuen saritzeko modua ere bada errekonozimendu hori, ezta?**

Errekonozimendua %100 herrin bertan ikusten du. Jendek ikaragarri eskertzen baitiu itten dun lana. Azken

finen herri ttiki bat da ta modu batera o bestera denak launtzen saiatzen ga. Herrin dudik gabe poz haundia sentitzen du jendek eskerrak ematen ttiunen, animok ematen ttiuztenen, edo edozein gauza pasatu bada ta galdeztzen badiute zer moduz gauden...jende asko kezkatzen da. Tarteka, norbete anbulantzin eramaten bada re oparin batekin eskertzen do, nahiz eta ez deus itten ai behar. Jendek asko eskertzen do.

Bestalde, 2013en Nafarroako Gobernuak eman ziun "Foruzaingon metopa honorifica" (merezimenduzko saria), itten dun lanangatik, ematen dun zerbitzuingatik, borondatez eta musu-truk ittegitik.

Bi hamarkada dagoeneko elkartasun jardunean. Bi hamarkada dagoeneko bizi-arrisku lanean. Gau eta egun, jai eta aste beti hor aldamenean. Eskerrik asko ta zorionak herritarren izenean.



Xabier kanguruekin,
Adelaidako mendian.



Australian, xapo bat kanguru artean

Dagoeneko bi urte eta sei hilabete pasa dira Aitziber eta biok Australia aldera etorri ginenetik. 2013ko azaroaren 17an irten ginen Euskal Herritik. Hasiera batean, gure asmoa urtebeterako egonaldia egitea zen, baina oraindik hemen segitzen dugu! Ongi gaudenaren seinalea da hori.

Lehendabiziko hilabeteak nahiko gogorak izan ziren, batez ere hizkuntza ez ezagutzea oztopo izan zelako, baina orain oso gustura sentitzen naiz.

Ingelesa jakin gabe etorri nintzen, nere lehenbiziko lana ingelesa ikastea izan zen. Pentsa, urte dezente Euskal Herrian lanean pasa ondoren, Austra-

liara etorri eta ingelesa ikasten hasi nintzen, ederra erronka! Urte askoren ondoren, berriro ikastea tokatzen zitzaidan, berriro eskolara. Egia esan behar badut, ez naiz inoiz ikasle amorratua izan, baina beharrak, ahalegin handia egitera eraman ninduen. Orain ordea, ez daukat inolako damurik





Adelaida hiria, Australiako estatu bateko hiriburua da.



Hobart, Tasmaniako hiriburuari begira.



Ilunabarra, Adelaidako Glenelg hondartzan.

ikasten hasi izanaz. Hona etortzeko erabakia hartu izan ez bagenu, Euskal Herrian ez nuen ikasiko hemen ikasi dudanaren erdia ere. Bizitzen ari naitzen esperientzia benetan aberasgarria izaten ari da, ez hizkuntzari dagokionez bakarrik, baita bizitzari dagokionean ere. Lana bilatzea oso zaila izan zen hasieran, baina nire ingelesa hobetzen joan zen heinean, nire lan aukerak ere zabaltzen hasi ziren.


Daukadan lana benetan interesgarria eta polita da; makina sulfatadorak

muntatzen dituen fabrika batean egiten dut lana. Lantokian bertan, kultura eta toki ezberdinetako jendea dago: Fijikoak, Afganistanekoak, Asiakoak, Zelanda Berrikoak, Ingelesak....Baita Australiakoak ere, noski, eta orain gainera, euskaldun bat beraien artean.

Bizi garen hiriak Adelaide izena du eta hegoaldean dago. Europa aldean ez da oso ezaguna, Sidney eta Melbourne askoz ezagunagoak dira. Baina gu oso gustura gaude bertan. Hiria ez da oso handia eta alde batera eta bestera ibil-

tzeko erraztasuna ematen du horrek. Batez ere bizikletan. Bidegorria dago hiri guztian zehar hondartzaraino. Libre dudanean, bizikletarekin kosta edo mendi aldera joatea gustatzen zait. Horrek, hemengo basoak, mahastiak eta bukatzen ez diren hondartzak ikusteko aukera ematen dit eta baita animaliak ere, kanguroak eta koalak. Adelaidako hiriak karratu forma du. Ongi zaindu-tako parkez inguratuta dago, benetan parke ikusgarriak, eta jendeak kirol asko egiten du parke hauetan.

Xabier koalarekin,
Adelaidako Cleland
National Park-ean.



Kanguruak McLaren Vale, mahastietan.

Bi urte hauetan bidaiatzeko aukera ere izan dugu. Australian hiri batetik bestera distantzia oso haundia da, beraz, mugitu ahal izateko hegazkina hartzea da aukerarik egokiena eta merkeena. Horrela, Australiako hiru hiri ezagunenetan izateko aukera izan dugu; Sydney, Melbourne eta Darwinen, alegia. Tasmaniako irla ospetsuan ere izan gara, benetan zoragarria. Hemengo mendiek eta kostaldeak Euskal Herria gogorarazten dit. Tasmanian gainera, Aitziberren guraso eta osaba-izebekin izan ginen. Lehendabiziko aldiz, autokarabana bat alokairuan hartu genuen eta bazterrak ikusiz, primeran pasa genuen. Munduaren beste puntan etxekoekin berriro elkartzea oso hunkigarria izan zen.

Australiari buruz zera esango nuke; distantziak oso haundiak direla, kultur aniztasun handia dagoela eta bizi kalitatea oso altua dela. Eguraldia ere, urte guztia kontutan hartzen badugu, oso ona da. Hori bai, ederra beroa egiten duena udan! Euskal Herrian ez gaude horrelako berora ohituta. Eske-

rrak klima lehorra den. Bizimodua nahiko garestia da, baina bertako soldatak ere altuak dira, beraz, ongi konpentsatuta dago.

Hori bai, nahiz eta oso ongi sentitzen naizen hemen, Euskal Herriko gauza batzuk ere faltan botatzen ditut, esate baterako bertako jana, lagunekin sagardotegira joatea edo poteatzea. Eta nola ez, familiakoak ere asko botatzen ditut faltan.

Bukatzeko esan, gure abentura hau hasi ezkerotik lehenengo aldiz bueltatuko garela abuztuan etxera, bi urte eta gehiagoren ondoren. Orduan aprobetxatu beharko dut hemen faltan botatzen ditudan gauzak egiteko.

Besterik gabe, besarkada bat familiakoei eta herritar guztiei Adelaidatik. Gora Goizueta eta goizuetarrak!

Laster arte,
Xabier Berroeta



Cradle Mountain, Tasmanian.

Sydneyko portua, Circular Quay bertako kaia oso leku ezaguna da.



Xabier eta Aitziber Flinders Ranges lurraldean, Eyre lakua dagoen tokian.



1993

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) Goizueta sartu zen urtea 1993a izan zen.

1993ko udazkenean hartu zuten Goizuetako eta Leitzako udalbatzek Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko erabakia. Prentsaurrekoa antolatu zuten gainera Iruñean horren berri emateko urriaren 9an, eta Nafarroako medio guziek luze eta zabala jaso zuten notizia.

Juan Oronoz, Leitzako alkatea, eta Esteban Arozena, Goizuetako Euskara Zinegotziarekin batera, UEMAko eta Udaleko Euskara teknikariak eta Mankomunitateko presidente zen Antton Izutueta azaldu ziren prentsaren aurrean. Bertan esan zenez, Gipuzkoa eta Bizkaiko 18 herrik osatzen zuten UEMA ordura arte. Goizueta eta Leitzaz ziren Nafarroako bi lehenak.

Goizuetak 947 biztanle zituen orduan eta hauetatik 931 euskaldunak omen ziren.

Ohi bezala atzera begiratzen dugunean aipagai dugun urte horretako



Ezkerretik eskuinera: Iñaki Arregi, UEMAko teknikaria; Antton Izutueta, UEMAko presidentea; Juan Oronoz, Leitzako alkatea; Esteban Arozena, Goizuetako Euskara zinegotzia eta Andoni Chivite, Goizueta eta Leitzako Euskara teknikaria.

Amabirjinen berri eman gabe ezin gelditu. Esan, abuztuaren 14a larunbata zen 1993an. Joxe Jabier Ansa zinegotziak eduki zuen itxaferoa botatzeko ohorea festei hasiera ofiziala horrelaxe emanez, baina benetako festa ostiralerako lehertu omen zen Egin egunkariak zioenaren arabera, kaleak eta tabernak gainezka baitzeuden hilaren 13ko ilunabarrerako.

Ohiko ekitaldiz gain, musika jaialdi "monstruoa" iragarri zuten Amabirjin bezperarako. Sorotan Belek, Mikel Laboak eta Xaximikuk jo eta kantatu zuten gauean eskolako frontoian. Argia aldizkariak antolatu eta Udalak, Umore Onak eta Gazte Asanbladak

lagundutako kontzertuan. 1000 pezetabalia zuten sarrerak (aurretik 800).

Urte hartako Peñaren pankarta ere aipagai zen Egin gure festei eskainitako orrian. Euskal Herriko orduko "errebeindikazio" nagusiak agertzen ziren bertan: Galindo generala eta droga trafikoa, intsumisia, kartzeletako egoera...

Dena den pankartaren erreferentzi nabarmenena orduan espetxeraturatutako zegoen Juan Miel Apezetxearentzat zen.

Azkenik esan, Egin Irratiak ere egunero eman zuela gure jaiei buruzko programazio berezia, izen bereko egunkariak iragartzen zenez.

Goizueta iruditan

Beren herriari ateratako argazkiak eskatzen dizkiogu Goizuetarren bati XAPOko atal honetarako. 15. zenbakirako Alaitz Eskuderori eskatu diogu bilduma bat osatzeko. Ez da erraza izan aukeraketa, argazki asko dituelako eginak. Hautatu dituenak zoragarriak dira, benetan.



Harrespila Arramaltan.



Behelainoa, Eneko Elorritik Berazkunera bidean.



14

iruditan



Goizuetako zubia Zubimuxutik begiratuta.



Udan belarrean.



Loitzate hesia, Loitzateko tontorretik Mendaur aldera.



Goizuetako irudia Portolotik aterata.



Margarita eta erlea, Portoloko belasoroan.



Azafran loreak Aitasemegiko soroan.



Ėgur enborrak pilan Kuxingo bordan.



Porrostako erreka.



Behorra Ahuntzbizkarren.



Mozorro, Montefriotik Olajaundira bidean.



Elamako zubia.

10 urte Umore-Ona Abesbatzaren doinuekin gozatzen

Herriko abesbatzak 10. urteurrena duela eta, orain arteko ibilbideari errepasoa emateko aitzakia ederra dugu aurtengo Xapo aldizkarian.

Umore-Ona abesbatza sortu zen 2006ko udazkenaren hasieran, Goizuetako kultur taldekoek bultzatuta. Hainbat herritarren kantarako zaletasuna egi bihurtu zen abesbatza sortzearekin. Gizon emakumeek osatzen dugu eta momentu honetan 31 korukide gaude. Abesbatzaren sorreran Igaratza Apezetxea, herritara, izan genuen zuendari. Hark sailkatu gintuen ahots ezberdinetako taldetan, harekin ikasi genituen lehendabiziko kantuak eta berarekin eman genituen Umore-Ona abesbatzaren lehendabiziko kontzertuak. Igaratzaren ondoren Nuria Colomer etorri zen Goizuetara eta hainbat urte pasa ditugu haren gidaritzapean.

Gaur egun Eneko Amundarain Irastorza da gure zuzendaria.

Gure sorrerari buruz aritu ondoren, nondik nora ibili garen eta gabiltzan aipatu nahi ditugu.

Urtero Eguberritan kontzertu bat herrian emateko konpromisoa hartua daukagu eta tartean sortzen diren konpromiso sozialak ere betetzen saiatzen gara. Horrela parte hartu dugu herriko ekintza desberdinetan, Agate Deuna egunean, ezkontzetan, omenaldietan, elizkizunetan, festetan... e.a.

ACTko ereserkia abestu genuen, Donostiako Kusaalean eta Santanderko Paraninfoan, Hernaniko Ozenki eta Kantuz abesbatzarekin batera. Hauekin baita ere, Zikuñaga auzoko tanborrada eta C.D. Hernanikoen ereserkiak abestu genituen, Imanol Kamiok konposatuak eta berak zuzenduta.

Elkartrukeak izan ditugu Donostiako Luberri, Bilboko Kirikiño Hernaniko Ozenki, Doneztebeko Mendi eta Iruñeko Iruña abesbatzekin.

Aurorok ere garrantzia dute Umore-Ona abesbatzan. Urtero Goizueta eta Hernaniko festetan Aurorak edo egunsentiak abesten ditugu. Aipatzekoa da, azkeneko hiru urtetan Nafarroako Auroroen bilkuran ere parte hartu izan dugula.

Egunsentiko kantak euskaraz egiten ditugu eta iaz Alesbesen 2. Euskararen egunera gonbidatuak izan ginen gure erreperorioa eskainiaz.

Ohiko kontzertuei dagokionez, kanta desberdinak abesten ditugu: Euskal folklorekoak, Ingelesak, Afrikanok, Espiritualak, Sakroak....e.a.

Arestian esan bezala, aurtien 10. urteurrena ospatzen dugu eta ekitaldi franko egiteko asmotan gabiltzia, honakoak esaterako: elkartrukea Igeldoko abesbatzarekin, kontzertua Donostian akordeoilari talde batekin, kontzertu berezia eta bideo emanaldia hamar urte hauetako gertaerak azalduz, egingo ditugu urteroko irteerak egunsentiak abestera ere, eta garrantzitsuenak 10. urteurrena nabarmentzeko, Eguarritan eskainiko ditugun bi kontzertu, bat Hernanin eta bestea Goizuetan, Hernaniko Ozenki eta Bandarekin batera.

Laburbilduta hauxe da orain arteko gure ibilbidea. ONGI IZAN!!!

Azaro kulturala 2015

2015eko azaro kulturala herriz ere ekitaldiz betea iritsi zen. Gozatze-ko musika, hausnartzeko filmak, gogoratzeko eta omentzeko ekitaldiak eta urteroko feria eguna ekarri zituen udazkenak herrira. Hurrengo argazkietan hauetako batzuk nola joan ziren ikusteko aukera izango duzue, honako bilduman.

Azaroak 6, ostirala

Ixkibiko Yamanek 2012. urtean Nepalen zehar egindako trekkingeko irudiekin osatutako dokumentala erakutsi zigun. Ondoren, ikusleen galderak erantzun zituen.



Azaroak 7, larunbata

Mikel Illarregi leitzarraren argazki eta olerkiek ukitu magikoa eman zioten labaderoari. Jende asko pasatu zen bertatik, eta iluntzean olerkiak errezi-tatzera ere animatu ziren batzuk. Bitartean, herriko ttikienek ederki pasatu zuten urteroko jokoetan.



Azaroak 13, ostirala

Iñigo Agirre eta Nerea Erbitik goxatu zuten Ganbara euskal kantu mitikoak abestuz.



Azaroak 14, larunbata

Duela 25 urte hain sonatua izan zen “Goizuetan bazen” antzerkian parte hartu zuten herritarrei omenaldi xume bat egin asmoz, antzerkiaren bideoa ikusteko aukera izan zuten eskolako jangelara hurbildu zirenek. A ze oroitzapenak!



Azaroak 20, ostirala

Bi urtean behin jokatzen den “Xalto bertso sariaketa” izan genuen Umore Ona elkartearen. 40 bat lagun aurrean kantatu zuten 7 bertsolarik eta Alazne Untxalo iturendarra suertatu zen txapeldun.



Azaroak 21, larunbata

Leitzako "Jeiki" abesbatza-ko kideek elizako giroa berotu zuten bere erreper-
torio anitz eta zabalarekin.



Azaroak 22, igandea

Emakumeen indarkeriaren aurkako egunaren harira, "Difret" filma ikusteko auke-
ra izan genuen. Bertan Etio-
piako emakume baten isto-
ria kontakutzen da eta giza
eskubideak urratzen dituen
tradizioen hausnarketara
eraman gintuen.



Azaroak 27, ostirala

Zinemetan estreinatu berria
zen "Amama" film arrakas-
tatsua herrian izan genuen.
Ikusmira handia sortu zuen
filmak, horren testigu filma
ikutera Ganbarara hurbildu
zen jendetza.



Azaroak 28, larunbata

Euriak ere ez zuen hutsik egin nahi izan
urteroko feria egunean. Eskoletako fron-
toia nekazaritza produktu eta artisau
postuz bete zen eta aziendek ere bere
txokoa izan zuten Irisarriko frontoian.
Urteko zita garrantzitsuena bihurtu den
honek jende asko bildu zuen.



Tifanitxo

herritar guztien bilgune



Une honetan, herritar guztiei zuzentzeko beharrean sentitzen naiz. Urteen joan etorrian zuetako askoren elkargunea izan naiz eta helburu horri eutsi nahi diodala helarazi nahi dizuet. Izan ere, irakurtzen ari zareten gehienok izango dituzue oroitzapenak nire baitan.

1959. urtean “Irtene” izenarekin eman ninduzuen ezagutzera eta antzezlan bat tarteko ireki nizkizuen ateak lehenengo aldiz. Herriko helduei begiak ixteko eskatu eta zinea aipatzen baldin badizuet, mila irudi etorriko zaizkizue gogora. Bertan egin diren antzerkiak eta pelikula emanaldiak gogoratzeko modukoak baitira.

Abesti zehatz batzuk jarritz gero, zuetariko asko dantzalekura bueltatuko zinatekete gustora. Amarako “Tiffany’s” diskotekaren pareko bihurtu ninduzuen “Tifanitxo” deituz. Asteburuetan zuen energia, dantzarako grina eta ondo pasatzeko gogoia amaiezinak ziren. Aipatzekoa da gazteen artean elkarri arrimatzeak aukera aparta ere eman nizuela.

“Zentro” izenarekin ere identifikatuko nauzue batzuk. Gazteak elkaritzeko taberna txiki bat eta telebista

ikusteko nahiz kartetan jolasteko topaleku garrantzitsu bihurtu nintzen. Herritar guztiei zabalik, tabernetan sartzea debekatua zuten emakumeei ere bai. Makina bat anekdota eta abentura izango dituzue kontatzeko.

Erabilera bereziagoak ere izan ditut: Eskolako klaseak eman izan dira bertan eta eliza obretan zegoenean mezak ere ospatu dira.

Gazte Asanbladako kideak sartu zinetenean, ilusioaren eta auzolanaren bidez biziberritu ninduzuen. Hala, zuetako askoren egunerokotasunaren parte izan naiz eta beste batzuen tartekako bisitaleku. Urte guzti hauetan herritarrentzat egindako ekintzak anitzak eta bikainak izan dira. Era ezberdinetan antolatzen joan zarete; talde lana baloratzen, erronka berriak ezartzen eta gainditzen... Herriko gazteen artean harremanak sortzeko eta sendotzeko eremu paregabea izan naiz.

Ezker Abertzaleak ere herriaren eta gizartearen gaineko hausnarketa eta lanketak eraman ditu aurrera azken urteetan.

Eskulanen zaleek ere, euren txokoa aurkitu dute inspirazioa, artea eta arratsalde ederrak partekatzeko.

Orokorrean, nire lau hormen artean ikasi, maitatu, elkarbanatu eta disfrutatu duzuenaren lekuko naiz, baina, baita eztabaida eta kezken gordailu ere. Nire parte izan zareten guztiak maite zaituztet eta zuek eman didazuen adina eskeini izana espero dut.

Laister metamorfosi txiki bat jasango dut, berritze eta sendotze lan batzuk tarteko. Denbora batez ateak itxiko ditudan arren, hasiera batean bezala nire ondoan nahi zaituztet. Urte guzti hauetan, joan etorrian ibili zarete herritarrek testigua elkarri pasaz, baina, atzetik datozenek zuek izandakoa eduki dezaten lan egiteko garaia heldu da.

Auzolanean egin nahi dituzue lanak, batek bakarrik gutxi egin lezake-ta. Denon indarrak biltzen badi-tuzue, nahi duzuen oro lortu dezake-zue. Bakoitzak bere ezagutzak, gaitasunak eta baliabideak eskeini ditzake, ez gehiago eta ez gutxiago. Beste behin, herri izaera erakusteko garaia da. Denon zerbitzura egon naizelako eta herritar guztiena naizelako.

Orain zuen txanda da! Guztiok dakizuenek non nagoen,... nahi duzuen arte!

EZETZ ASMATU

Normalean, atal hone-tara ekarri izan dugun argazki sortan herriko hainbat irudi eta herri-tarren erretratoak bil-du izan ditugu, ager-tzen diren tokiak eta pertsonak ezagutzen ote dituzuen galdetze-ko.

Oraingoan, Gazte Asanbladaren ingur-ruan ateratako argaz-kiak ekarri ditugu, izan ere aurten sortu zenetik 25 urte beteko baitira. ZORIONAK! Aitzakia ederra sorreratik gaur-daino pasa diren gaz-teak atal honetan bil-tzeko. Ezagutzen al di-tuzue denak?







Txirrita eta Goizueta

ko misioak

Xapoko bertso orriaren helburua Goizutarrak idatziak eta Goizutarekin lotura duten bertsoak argitaratzea da, lehen aipatu izan dugun bezala. Ba ale honetan, aitzaki ederra aurkitu dugu bertsolaritzaren historian mirestuen den pertsonaiaz idazteko, Txirritaz alegia.

Ondoren irakurriko dituzuen bertso hauek Pasionistek eskainita Goizuetan 1916an ospatutako Misioak gaitzat hartuta idatzi zituen Txirritak. Beraz,

aurten egin dituzte 100 urte. Gainera, autoreak bera hilik ere urteurren borobila beteko da 2016an. Orain laurogei urte, 1936ko ekainean, eman baitzuen azken esnasia Altxako bere baserrian.

Heriotza honek ere badu lotura gure herriarekin, gauza jakina baita Txirritaren azken bertso plaza Goizueta izan zela. Kantatzerik izan ez bazuen ere dirudenez, 1936ko ekainaren 2ko El Dia egunkariak zioenez, Aberri Egunean kantatzeko Batzokikoek ekarri zuten

Txirrita gurera Saiburuarekin batera. Patziku Perurenak argitaratu izan dituen datuen arabera, Lubinen bazkaldu eta kantatzera abiatzerakoan perlesiak jo zuen bertsolari handia eta handik hiru egunetara hil zen.

Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" Ereñozun jaio zen 1860an eta plazaz plaza ibili eta milaka bertso idazteaz gain, bera bizi zela antolatutako bi txapelketak irabazi egin zituen, 1935ekoa eta 1936koa hain zuzen.

Bertso Berriyak Misiolari Pasionistai jarriak

Ondorengo 14 bertso hauek zortziko handian idatzi zituen Txirritak eta goian aipatu bezala fraile pasionistak Goizuetan ospatutako Misioei buruzkoak dira. Neurrietan akatsen batzuk aurkituko ditu irakurleak baino seguru aski inprentaren erruak izango dira.

- 1)** Gaude milla ta bederatzieun
amaseigarren urtian,
oso ez gera iristen baño
ez gabiltza apartian;
misionistak izandu dira
Goizueta'ko partian,
oien bisitaz oroituko naiz
Bizirik nagoen artian.
- 2)** Misio oiek bazetozela
genduenean aditu,
eserzetako lanak utzita (sic)
agudo giñan mugitu;
Madalena'ko zabaltokian
iñor ezin zan kabitu,
ankarik jaso zezakeanik
Etxean etzan gelditu.
- 3)** Alkatia ta bikarioak
eman zizkaten eskuak,
oien barrendik irteten ziran
asnase larri estuak;
alde batera uzteko diye
mundu ontako gustuak,
garai arretan etzauden lasai
emengo maiorezkuak.
- 4)** Apirillaren zortziyan ziran
predikatutzen asiya,
parrokiara sartu giñaden
juntatu giñan guziyak;
oiek dirade Jaungoikoaren
bildur aundiyan aziyak,
argatik eman biar zaizkate
eskerrak eta graziya.
- (5)** Makario zan lendabiziko
predikatutzen asiya,
asko gustatu zitzaidan aren
itzegiteko graziya;
gu salbatzeko asmuhan dabil
sotana beltza jantziya,
bildurrik gabe juateko diyo
bada ba gomenentziya.
- 6)** Ura gizonen kuraji eta
itzegiteko graziya!
arriturikan gelditu giñan
bisteko jende guziya;
Makario zan lendabiziko
predikatutzen asiya,
pekatariyak gonbertitzeko
jarri zan gomenentziya.
- 7)** Mutil gaztiangatikan ere
zerbait esan du fraileak,
uzteko diyo garai txarreko
zurrutak eta baileak;
nola dakarren ondoren txarra
gazte farranda-zaleak,
oiera juanda errezatzeko
ezpagaude loaleak.
- 8)** Eju in zuten guraso zarrak
atentziyoan jartzeko,
bakoitzak bere familiari
ondo erreparatzeko;
misio santu ontako itzak
ondo goguan artzeko,
munduan ongi portatu eta
gero zeruan sartzeko.
- 9)** Beren bisita egiten dute
bost urtetik bost urtera,
esanaz: "Eman lenago lotsaz
gelditurikan ote da?".
Gonbertitzeko asmorik bada
jarri digute aukera,
gero okerrik izan ez dedin
orain kontuak atera.
- 10)** Emakumiak ere gaixuak
ez daude denak justuak,
eztut batzuak aditu ditut
nearrarekiñ nastuak,
malkuak bera deizkiotela
gurutzeturik eskuak;
ez ikaratu, barkatuko du
gure Jaungoiko prestuak.
- 11)** Oinbesteraño nekatutzeko
iñork ez ditu biartu,
esaten zuten: "Atozte lasai,
etzaitezela bildurtu!"
Olaxe ere jaun oietara
iñor ezin zan limurtu,
lenago etsai bizi giñanak
orañ aingeru biurtu.
- 12)** Ministro oiek izandu dira
predikadore sotillak,
lendabiziko gizonengatik
izugarrizko batallak;
gero aboan artu dituzte
neskatxak eta mutillak,
azkenerako astindu ziran
atsuen patar-botilla.
- 13)** Elizarako ate onduan
dago gurutze santua,
zeñengatikan ipiñia dan
ongi atera kontua;
mundu triste au salbatzegatik
ez da gutxi nekatua,
gora Jaungoiko egiazkoa
eta bera pekatua!
gurutzeturik eskuak;
ez ikaratu, barkatuko du
gure Jaungoiko prestuak.
- 14)** Bertso oriek ez dira izan
goizuetarran kaltian,
len aña anima ez dago orain
diabruaren katan;
Aita San Pedrok sartu gaitzala
zeruetako atian,
denak jostatzen an ibiltzeko
aingeruakin batian.

Herriko plaza zeharkatzen dudanean, nire pausoak musikaren erritmoarekin bat egiten ari dira. Ia ez dut kaleko hotzik sentitzen, barruko irrika eta ilusioa areagotzen bait doaz gaztetxean sartzearekin batera.

Azkar batean, nire gorputza tronpeten musikarekin batera martxan jarri da eta herritarren artean galtzen noan heinean... "zast" hortxe aurkitu dut zure begirada ilun eta sakona. Segundu labur batzuetan zure begiradari heldu diot, irrifar bihurri batekin guztia esango banizu bezala. Baina berehala apurtu da momentuko magia, Joxe Ripiauren "Margarita" abestiarekin, gainera saltoka etorri zaizkigunean. Lagun multzoaren artean nahasi naiz eta abestien joan etorrian, zerbezen joan etorrian,... gaztetxeko euforia giroa nire barruan sumatzen hasi naiz.

Ez dut aukerarik galtzen non zaren ikusteko, begiratzen ote nauzun jakiteko edo, nahi gabean balitz bezala, zugana hurbiltzeko. Eta konturatu naizenerako alboan zaitut keinu lizun bat eskainiz! Gure gorputzak musikaren erritmoan mugitzen hasi dira, eskuak elkar laztantzen, begiradak hitzegiten,... eta hala, gure arteko distantzia guztia desagertu da muxu bakar baten poderioz. Zure ezpainen leuntasunak eta mingainen erabateko jolasek, sabeletik hasi eta oin nahiz ile puntetaraino iritsi zaidan hozkirri bat eragin didate.

Senak hala aginduta, paretaren kontra jarri zaitut eta nire eskuak zure larruazalak gordetzen dituen sekretuen bila hasi dira. Bihotz taupadak bizkortu zaizkit, zure eskuak sabelean gora zein ipur masailetan behera sumatzean.

Une bakar batean, inguratzen gaituen parranda eta jendeaz ahaztu naizen arren, intimitate gehiago lortu nahiean jertsetik heldu eta kalera ateratzen zaitut. Birritan pentsatu gabe, tifa-nitxoko eskaileretan gora goaz.

Gela barrura sartu eta tximiniko txingarrek argitzen duten sofa ertzean etzan gara. Sutondoko txinparten antzera indartzen eta berotzen hasi gara

ukitu bakoitzeko. Muxuen, fereken eta arnas estuen abiadura azkartzen doaz, bata bestea erantzten duen bitartean. Agerian geratzen diren azaleko milimetro gehienak miazkatu eta dastatzen dizkiogu elkarri. Beheko zaratak pixka bat urduritzen nau, inor igoko ote den beldur edo lotsaz naizelako baina onartu behar dut aldi berean morbo ikaragarria ematen didala.

Gaiean zaitut eta hortz artean hartu dizkizut belarria, lepoa eta titi punta gogortuak, hankartearen egiten dizkidazun laztanaren ondorio gisa. Muxu luze eta kitzikagarri baten ostean zure ezpainak nire gorputz ataletan behera sentitzen ditut. Ezinegon txiki batean murgildu naiz nire zentzumen guztiak ernegatu zaizkidalarik. Plazerra helmugatzat dugun hartu-eman honetan, nire behatz eta mingain puntak ere lanean dihardute gozamenaren eragin diezazukeen edozein txokoren bila. Minutu batzuk pasatakoan berotasuna

eta erritmoa areagotzen doaz. Gure hankarteetan behatz eta eskuen abiadurak azeleratzen doaz, ezpain, lepo, masail... bazter guztietan muxukatu nahi zaitut. Libre dudanean eskua leun jeisten dut zure bularretatik sabel aldera, izterretan gora eta behera, ipur maisaila gogor heldu dizudan artean. Begirada eta irripar urduri batekin erne begiratzen diogu elkarri datorrenaren desiran eta zoramenaren gerizian. Halako batean, mugimendu kontrolaezin eta oldarkor batek gain hartu gaitu. Une batez, arnasik gabe geratuko nintzela uste banuen ere, gure hasperenek salatu gaituzte kontrakzio amaiezin batean.

Minutu bat pasatakoan, muskulatura guztia berriro sentitzen hasi naizenean zigarro bat piztu dugu. Zure ezpainetatik ateratzen den keari begira geratu naiz, jakinda, edozer emango nukeela ezpain eder horiek berriro muxukatzegatik.



Herrian gasolindegia patu nahi da. Zein da zure iritzia?



JULIAN SALABERRIA

Herria meioratzeko dena... oso ongi iduitzen zit.



EIDER ZUGARRAMURDI

Idea oso ona iduitzen zit, bestela egon behar du pendiente Hernanitik pasatzekon ailetuko gan edo ez.



MªJOSE NARBARTE

Oso ongi iduitzen zit. Herriik behar dun zerbitzu bat da.



INES ALMANDOZ

Komeni da, dudik gabe!




MIRIAM AROZENA

Falta zen zerbitzu bat da.



IÑAKI LOIARTE

Ongi, bai herrintzako ta baita neretzako ere.



ARANTXA NARBARTE

Ongi iduitzen zit. Kilometro asko nola dian herri batetik bestera, bertan eukitzea, ongarria izango da.



ANA LUJANBIO

Oso ongi, zerbitzu hori herrian ematera.



ZURE TXANDA

Maite Alsua



Zein da zure lanbidea?

Irakaslea

Non egiten duzu lan?

Goizuetako eskolan.

Zenbat denbora behar duzu lanera joateko?

Minutu pare bat, etxe ondoan dago eskola eta...

Goizuetan bizitzekin, ze suposatzen du bertan lana egiteak?

Oso erosoa da.

Ze suposatzen dio familiari?

Nere kasuan gozada bat izan da, umeen ordutegi berdina izan dudalako, bai jeikitze, bazkaltze, oporrak.... Eta horrek lana asko errazten du.

Noizbait pentsatu al duzu lanagatik kanpora bizitzera joatera?

Ez. Lana kanpoan egin dudanean ere, ez zait gogorra egin eguneroko bidaia hori eta gustora etorri naiz beti herrira.

Nahiago izango al zenuke kanpoan lan egin?

Momentu honetan ez. Kanpoan esan behar dut gustora ibili naizela lanean eta nere beldurak banituela herrian lana egitea tokatu zitzaidanean baina oso gustora nago herrian ere, eta momentu honetan pereza emango lidake kanpora joatera.

Etorkizunean, non ikusten dituzu zure seme-alabak?

Ez dakit baina oraingo martxan zaila ikusten dut hemen gelditzea.

Zer gustatzen zaizu egitea, zure denbora librean?

ibiltzea asko gustatzen zait eta lagunekin kafe-txo bat hartzea.

Ze falta sumatzen duzu herrian?

Momentuz, ez gaude gaizki baina jendearen behar akada nabarmena da eta faltan gehiena sumatzen dudana gazte jendea ez gelditzea herrian bizitzen.

M^a Jose Apezetxea



Zein da zure lanbidea?

Irakaslea naiz.

Non egiten duzu lan?

Leitzako eskolan.

Zenbat denbora behar duzu lanera joateko?

Hogei ta bost minutu.

Goizuetan bizitzekin, ze suposatzen du kanpoan lana egiteak?

Egunero kotxea hartu behar izatea eta honek suposatzen duna; denbora arriskua eta gastua beste gauzen artean.

Ze suposatzen dio familiari?

Familiari eskeini beharreko denbora sakrifikatu beharra, eta denbora hori, beste pertsona batek bete behar izatera.

Noizbait pentsatu al duzu lanagatik kanpora bizitzera joatera?

Inoiz ere ez.

Nahiago izango al zenuke herrian lan egin?

Aukera izan ezker, bai.

Etorkizunean, non ikusten dituzu zure seme-alabak?

Azkeneko urte hauetan herria nola jeisten ari den ikusita, semeak herritik kanpo ikusten ttut etorkizunean.

Zer gustatzen zaizu egitea, zure denbora librean?

Lagunekin egotea, ibiltzea, irakurtzea.

Ze falta sumatzen duzu herrian?

Herria mantentzeko zer bait egitea.